



Miguel Ángel Ugartemendia | AEG IKASTETXEA (DONOSTIA)

1. saria

2. saria

(www.aeg.es)

ZIKLOAK

“GAITASUNEN, TREBETASUNEN ETA EMOZIOEN LABORATEGIA DA KOSMODISEA”

Miguel Ángel Ugartemendia da Donostiako AEG Ikastetxeko taldeen irakasle arduraduna. Talde horiek, hain zuzen, 2009-2010eko Kosmodiseako lehenengo eta bigarren sariak eskuratu dituzte, Zikloak etapan.

Ugartemendiak nabarmendu duenez, AEGko ikasleek Kosmodisean izandako parte-hartzeari buruz duten iritzia oso positiboa da. *“AEGren helburua, hain justu, pertsonen lanbide heziketan eta giza heziketan jardutea da. Lanbide heziketarako, sistema pedagogiko aurreratuenak erabiltzen ditugu; giza heziketarako, aldiz, ikasleei lan mundurako beharrezkoak diren balioak, gaitasunak eta trebetasunak lantzen lagunduko dieten eduki eta metodologiak txertatzen ditugu zeharka; izan ere, lan mundu horretan jarriko dituzte praktikan eskuratutako ezagutza guztiak. Arlo horretan eskaintzen die Kosmodiseak,*

hain zuzen, baliabide interesgarriak; ekimenaren zentzua sustatzen duten baliabideak, alegia. Hala, hainbat balio garatzen dituzte; hala nola sormena, nork bere buruarekiko konfiantza, tolerantzia, taldeko lana, azterketarako gaitasuna, gatazkak konpontzeko gaitasuna, etab. Horrek guztiak dauka eragina ikasleen trebakuntza osotuan; eta azkenerako, enpresek irrikatzen dituzten teknikari bilakatzen dira. Izan ere, ezagutza tekniko eguneratuak edukitzeaz gainera, euren lanaren arrakasta ziurtatzen duten jarrerak, gaitasunak eta trebetasun emozionalak ere izaten dituzte.”

- Zure ustez, ekimen honetatik zer iruditu zaie interesgarriena ikasleei?

- Ikasleak harrিতuta geratu dira, eta ekimenean barna egiten joan diren aurkikuntza pertsonalak oso begi onez hartu dituzte. Euren gaitasunak ezagutu dituzte: sormenerako gaitasuna, azterketarako gaitasuna, entzuteko eta taldean jarduteko gaitasuna, lanarekin gozatzeko gaitasuna, gatazkak konpontzeko gaitasuna... Era berean, arrakasta eta porrota zer den ikasi dute. Azken batean, ikasleek euren ahalmenak, adimena eta hobetu beharreko garapen pertsonaleko arloak ezagutu dituzte.

- Zer iruditu zaizkie emaitzak ikasleei?

- Porrota zer den jakin dute; izan ere, hasiera batean, hainbeste buru-hauste ekarritako lana ez baitute eurek pentsatzen zuten moduan aintzat hartu. Baina egoera horri aurre egiteko, adorerik eza eta frustrazioa gainditzeko trebetasunak landu dituzte. Hala, ekimena abian jarri, eta azkenean, lan irabazlea gauzatu dute, poztasuna eta arrakastaren emozioa ekarri dizkien lana.

- Zure iritziz, Kosmodisean parte hartuta, ikasleek zer balio positibo eskuratuko dituzte?

- Ikasleek lan munduko egunerokotasuna islatzen duten egoerak izan dituzte begien aurrean. Kosmodisea, beraz, lan munduaren errealitatea biltzen duen laborategia izan da; bertan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabili dituzte ekoizpenerako tresna moduan.

Ekimenaren zentzua sustatzen duen laborategia da Kosmodisea.

Emozioen laborategia da Kosmodisea.

Gaitasunen eta trebetasunen laborategia da Kosmodisea.

- Zer da, zure ustez, Kosmodisea 2009-2010eko gauzarik onena? Zer alderdi hobetuko zenituzke?

- 2009-2010eko Kosmodiseak duen gauzarik onena, hain zuzen, zeharka lantzen dituen balioak dira; hala, kultura ekintzailearen gaitasunak eta trebetasunak eskuratzen laguntzen die ikasleei.

Nire ustez, gauzatutako lanak ebaluatzeko modua da bereziki hobetu beharko litzatekeena. Horretarako, interesgarria litzateke:

- lanbide heziketako taldeetan, enpresa munduko pertsonaren batek parte hartzea.
- gizarte estamentu ugarietako pertsonak ematea lanei buruzko iritzia; alegia, adineko pertsonak, politikariek, ekintzaileak, psikologoak, irakasleak, etab.
- lanari buruzko iritzia ematean, landutako trebetasunak eta gaitasunak aintzat hartzea, eta ez soil-soilik lortutako emaitzak.
- talde bakoitzak bere ideia garatzeko aukera izatea, eta ideia horrek bideragarria izateko itxura edukitzea.

- Parte hartuko al duzue hurrengo Kosmodisean?

- Lanbide heziketako ikastetxe batek ezin dio muzin egin era honetako ekimen bati. Izan ere, baliagarria da ikasleak kultura ekintzailean oinarritutako trebetasunetan, gaitasunetan, eta balioetan trebatzeko. Beraz, hurrengo Kosmodisean ere parte hartuko dugu.

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, oharrak, kritikak...

- Ekimena pentsatu zuten pertsonari zorionak eman nahi dizkiegu, eta baita berau abian jarri dutenei, ikasleak gidatu dituzten irakasleei eta ilusio handiarekin lanean jardun duten ikasleei ere.

Gure ustez, proiektu baliagarria da, berritzeko gogoz dagoen gizarte baten kultura ekintzaileari bere apurra ematen dion proiektua.